

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Bahe-kirten

Angula sasoia puri-purian dago. Aurtengoan urtarrilaren 31ra arte. Lehorreko angulato-kiak bezala txalupak ere prest daude. Alu-nean lotuta dago txalupa hau, basa harrotze-raino errioren erraiak orraztuko dituen bahe-parea heltzeko tramankulua du brankan. Gai-nean anguletarako tresnak txukun-txukun. Tartean bahe-parea eta badaezpadako hiruga-rreren bat eta bahe-kirtena. Gaur egun meta-lezkoak dira erriko bazterrean ikusten diren kirten gehienak. Argazkikook egurrezkoak dira, haltza (*Alnus glutinosa*), maiatzeko ilber-rian botatako haltza. Ilberrian, bahe-kirtena malgua izatea komeni baita, ur-karga handia denean edo kateatuz gero hautsi gabe ahal den gehien okertzerainoko malgua.

Erlikiaz erlikia

GOJIA, *Lycium barbarum*, da bai azken puntako antioxi-datzailea. Himalaiako hotzetatik ekarritako gojiaren pasak zahartzaroa atzentzen omen... Fruitu gorri gehie-n gisara osasuntsua da oso, bitaminatik ugari du, eta beste osagai ongarri eta hobarien artean fruituetan aur-kitzen zailak diren azido koipetsuak ditu. Dena dela, ikerketa askoren jomuga da gojia, minbiziei aurre egin eta makaldu ditzakeelakoaren ustetan, batik bat.

Lycium genero berekoa da hesilaharra, *Lycium euro-paeum*. Mediterraneo aldean zabaldutako espezieari eman izan zaio izen hau, baina *Lycium barbarum* (gojia), *Lycium chinensis* eta hirurak hiru tokitan bizi den espezie bakartzat jotzen ditu botani-kari ugari.

Katoliko faxiste-nen eta antigoeleko-en Erromako egoi-tzan jasotzen den Kristorena omen zen koroa erlikiaren aran-tza hesilaharra dela diote, eta *spina benedic-ta* ere deitu izan da landare hau. Biblian maiz aipatu dela diote. Sekta honek egun oraindik susta-tzen dituen genozi-dioen bedeinkaziora-ko aitzakia...

Xelebrea badiru-di ere, hesilaharrak gazteleraz dituen izen ugarien artean, bada euskaldunoi deigarria gertatzen zaigun bat: artoa. Hesilaharra ez da artoa, guretarto genuen amerikar artoa, *Zea mays*. Baina inoiz artoa izan ote da? Artoa, grekozko *artos*, legamiarik edo orantzarik gabeko ogia da. Gure artoa landarea bera da, baina baita artoz egindako zapero antzeko ogi trinkoa ere. Artoak artatxikia (*Panicum miliaceum*) baztertu zuen. Artatxikiak inoiz baztertu ote zuen hesilaharra? Modako goji hima-laiarra noizbait izan ote da gure ogi?



RETAMA

Hesilaharra, *Lycium europaeum*.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.